



HAMAIKA ESKU PROGRAMA

GARAPENERAKO ORIENTABIDEAK

2014-15, 2015-16, 2016-17 ikasturteak





Aurkibidea	Orr.
1.- SARRERA	4
2.- PROGRAMAK SUSTATZEN DITUEN JARDUERA-ILDOEN DESKRIBAPENA ETA LAGUNTZA-TRESNAK	9
L1.-IKASLEEN ARRETA ETA SEGIMENDUA	
L2.-IRAKASKUNTZA-JARDUERA	
L3.-FAMILIEN ETA ESKOLEN ARTEKO LANKIDETZA	
L4.-HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNA	
L5.-MATEMATIKARAKO GAITASUNA	
L6.-BALIABIDEEN PLANGINTZA, ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA	
3.-HELBURU / ADIERAZLEEN LABURPEN-TAULA	15
4.- PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEEN JARDUERA	21
IKASTEGIKO JARDUERA	23
BERRITZEGUNEKO AHOLKULARIAREN JARDUERA	30
IKUSKARITZA-JARDUERA	34
TALDE TEKNIKOAREN JARDUERA	39
HEZKUNTZA-ADMINISTRAZIOKO BESTE ZERBITZU BATZUEN JARDUERA	45
5.- SEGIMENDURAKO TRESNAK	47
6.- BESTELAKO TRESNA ETA DOKUMENTU INTERESGARRIAK	51
7.-BIBLIOGRAFIA	63



1.-SARRERA

Zer da Hamaika Esku? Programaren helburuak

Hamaika Esku programa desabantaila sozial, ekonomiko eta kulturalean diren ikasleen emaitzak hobetzera zuzendutako ekimen instituzionala da. Halaber, ikastegietan egindako kanpo-ebaluazioetan (PISA, diagnostiko-ebaluazioa) emaitzen hasierako mailan dauden ikasleen ehunekoa murrizteko helburua du. Programa honekin, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ekitate eta kalitate printzipioen aldeko apustu argi bat egiten du, gainerako ikasleen abiapuntu erabat desberdina duten ikasle ugari dituzten ikastegien alde, eta / edo gaitasun desberdinetan Euskal Autonomia Erkidegoko ikastegien batez bestekoa baino emaitza kaskarragoak lortzen dituzten ikastegien alde. Horretarako, ikastegi horiek eskura diferentzia horiek murrizten laguntzeko baliabide eta neurriak jartzen dira. Baliabide eta neurri horiek ikastegiak berek adierazitako zailtasun eta beharrei erantzuten diete, edota hezkuntza-ikerketaren eta ekimen eta esperientzia arrakastatsuen ondorioz lortutako hezkuntza-emaitzak hobetzeko datuei.

Hamaika Esku izenak adierazten du esku-hartze eta jarraipen lerro asko eta desberdinak martxan jartzea beharrezkoa dela, eta esfortzuak bateratu behar dituzten profesionalak eta eragileak asko direla. Helburu nagusia ikasle guztien hezkuntza-emaitzak hobetzea da, ikastegi bakoitzaren ezaugarri zehatzetatik abiatuta. Ildo horretan, irakasleen jardunari berari buruzko hausnarketa sustatu eta / edo lagundu nahi du, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan al bait inplikazio handiena bilatuz, eskola-komunitatearen partaidetza sustatuz, batez ere familiarekin, Berritzegunearen aholkularitzarekin eta Hezkuntza Ikuskaritzaren segimendu eta balorazioarekin. Orobat, beste administrazioko zerbitzu eta eragile batzuk barne hartu nahi ditu, baita gizartea modu orokorrean ere.

Hamaika Esku programa aldaketaren fokua ikasle guztien ikaskuntzan jartzeko eta emaitzen joera negatiboa iraultzeko aukera bat da.

Programa hau 2014-2017 aldian garatuko da eta, lehenago, 2013-2014 ikasturtearen bigarren erdian egindako aurretiazko diagnostiko- eta diseinu-fase bat egin da.

Nori dago zuzenduta dokumentu hau?

Dokumentu hau, nagusiki, programan parte hartzen duten ikastegietan esku hartzen duten Laguntza Zerbitzuen aholkulariei (Berritzegune) eta Hezkuntza Ikuskaritzako ikuskariei dago zuzenduta. Dokumentuaren helburua eragile horientzako jarduera-esparrua izatea da, eta programaren eta prozesuko emaitzen segimendu orokorrari bide ematea. Talde Teknikoak prestatu du eta ebaluazio eta hobekuntza-proposamenetatik lortutako ekarpen berriak jasotzeko tresna irekia izan nahi du.

Aholkularitzaren eta segimenduaren gakoak

Plan honetan planteatzen diren aholkularitzak eta segimenduak ikastegietan aldaketarako barne-ahalmena sortzera zuzenduta egon behar dute eta, era berean, azken helburuak ikasleen ikaskuntza-emaitzetan eragitea izan behar du.

Aholkularitzarako, segimendurako eta ikuskaritzarako estiloak testuinguruaren arabera doituta egon behar du, orobat ikastegi bakoitzaren egoera zehatzaren arabera. Hobetzeko ekintzak



sentitzen diren behar eta lehentasunei erantzutera zuzendu behar dira. Berrikuntza txikiekin has daiteke, aldaketa sakonagoetarako motor bihur daitezkeenekin. Aholkularitza-prozesuaren ildoak eguneroko irakaskuntza-jarduera eta curriculuma aplikatzean sortzen diren arazo garrantzitsuak berrikustea izan behar du.

Curriculumeko edukiak garrantzitsuak izan arren, erabilitako irakaskuntza-estrategiek are gehiago eragiten dute ikasleen emaitzetan. Azken batez, prestakuntzak, aholkularitzak eta ikuskapenak curriculuma hobeto irakasten jakiteko gaitu behar ditu irakasleak. *“Eskolaren aldaketa irakasleen pentsatzen eta egiten dutenaren arabera da”*, eta, zehazkiago, ikasleei eginarazten dietenaren arabera da.

Ikasleen ikaskuntza-irakaskuntzako alderdietan laguntzeko eta horiek hobetzeko estrategiak zehaztu behar dira, ikasgelako arlo metodologikoetan eta didaktikoetan; azken batez, horretan gertatzen baitira ikaskuntza gertatzeko baldintzak.

Aholkulariak bitartekaria izan behar du eskuragarri dagoen ezagutza pedagogikoaren eta irakaskuntza-jardueren artean. Gainera, ezagutza eraginkortasunez transmititu ahal izateko, eskolan didaktikoki aplikatzea beharrezkoa da. Ez da aski teoria aurkeztea, alegia, nola egiten den frogatu behar da eta, hortaz, gomendagarria da gelan egiten / aplikatzen den bitartean laguntza jasotzea.

Batzuetan, garrantzitsua izan daiteke behar bereziak dituzten zenbait ziklo edo mintegirekin edo irakasle-taldeekin lan egitea. Dena den, banaka sortutako ekimenak, curriculum normalizatutik kanpo geratzen diren ekintza sakabanatuak izan ez daitezen, hezkuntza-proiektu instituzional batean inskribatu behar dira. Irakasleek maiz banaka jarduten dute, baina ikastegi batek osorik aurrera egingo badu, beharrezkoa da elkarrekin ikasteko aukerak egotea.

Ikastegia da, unitate gisa, ikasleekin esku hartzean hezkuntza-ildo bat bermatzea ahalbidetzen duena, irakasleek ikastegiko proiektuekin lotura izatea bermatuz. Profesionalen barne koherentziari eta koordinazioari esker, kanpo eragileen arteko lankidetzak ezarri ahalko da.

Aurrekoa dela eta, aholkularitzaren helburuak ikastegi arteko lankidetzak ezartzea izan behar du, ezagutzak eta esperientziak trukatzuz ikaskuntza jarraituko formula berriak sortzen lagundu ahal izateko.

Azkenik, prozesuan zehar egindako segimendu eta ikuskaritzak ikastegi beren lehentasunen arabera antolatzen dituzten ekintzak bultzatzen eta horietan laguntzen lagunduko dute, baita jardueraren eta ebaluazioaren gainean hausnarketa sustatzen ere, hain eraginkorrak ez diren lan-ildoak berriro bideratzeko eta ildo arrakastatsuak sustatzeko.

Esku hartzeko printzipioak

1.- IKASLE GUZTIEN IKASKUNTZA. Helburu nagusia emaitzak hobetzea da eta horren arabera dira gainerako helburu guztiak: curriculum aldaketa, antolamendua aldaketa, abian jarritako baliabideak aldaketa edo hezkuntza-politikako laguntzak aldaketa.

- IKASLE BAKOITZAREN AHALMENAK ALBAIT GEHIEN GARATZEA DA JARDUERAREN ARDATZA. Ikasleen honako kontzeptzio hau da abiapuntua:
 - ✓ Izaki globalak dira
 - ✓ Berezko interes eta motibazioak dituzte
 - ✓ Berezko potentziala du (eta horrek esan nahi du espektatiba altuak dituztela)
 - ✓ Irizpide koherenteak behar ditu bere hezkuntzaz arduratzen direnen jardueran



- ✓ "Goi-mailako interesa" bilatzea da hezkuntzako esku-hartze ororen printzipioa.
- **MARTXAN JARTZEN DIREN EKIMEN GUTZIEN ORIENTAZIO INKLUSIBOA.** Planteamendu inklusiboak eraginkortasuna eta ekitatea bateragarri bihurtzeko bermea dira. Printzipio hori dela eta, hezkuntza-inklusiorekin lotutako kulturak eta ikastetxeetako hezkuntza-politikak nahiz -jardunak aztertu behar dira, betiere, inklusioa modu zabalean ulertu behar dugularik; hau da, ikasle guztiak eskolan egon, ikasi eta parte hartu ahal izatea da inklusioa. Horrela, zenbait ikasleren partaidetza eta ikaskuntza mugatzen ari diren mugak identifikatzea errazten da.
- **IKASLE GUZTIEKIKO, HORIEN FAMILIEKIKO ETA KOMUNITATEAREN HEZKUNTZALANAREKIKO ESPEKTATIBA ALTUAK SUSTATZEA ETA MANTENTZEA** Gaur egun dakigun bezala, irakasleek nahiz ikasle eta familiek hezkuntza-prozesuarekiko dituzten espektatibak aldagai garrantzitsua dira ikaskuntza-prozesuan. Espektatiba altuak izateak eta komunikatzeak, ikasle bakoitzaren estimulu eta erronkaren bidez, errendimendua, ikaskuntza eta autoestimua hobetzen ditu. Ikasleen aukeretan konfiantza izanda bakarrik egin dezakete aurrera. Gauza bera gertatzen da zenbait talde kultural eta etnikori edota zenbait familiari dagokionean.
- **INTERAKZIOA, IKASKUNTZAREN OINARRI GISA.** Testuinguru guztietan eta beste pertsona batzuekiko interakzioan ikasten da. Jatorri zaileko ikasleek interakzioak aberastu eta dibertsifikatu behar dituzte, izan ere, eskolari dagokionez (eskolarekin erlazionatutako ikaskuntza-estrategiak, edukiak...) oztopoak dituzte. Horretarako, ezinbestekoa da beste pertsona batzuk izatea: helduak (beste kultura, maila akademiko edo jatorri kultural batzuetakoak) eta neska-mutil eta gazteak, dibertsitatea eskaintzeko (ez bada posible beste ikasle batzuk erakartzea, dibertsitatea unibertsitateko gazte boluntarioek, kale-hezitzaileek eta abarrek eskain dezakete).
- **IKASKUNTZETAN LAGUNTZEKO ERABILTZEN DEN METODOLOGIAREN FUNTSEZKO ROLA.** Interakzioak, lankidetzak kooperatiboa eta proiektu bidezko lana sustatzen dituzten metodologiak sustatuko dira. Orobat, ikaskuntza-denbora optimizatzea, ikasteko giro lasai eta atsegina indartzea, estetikaren garrantzi eta balioa azpimarratzea, ikaskuntza gertatzen den espazioa zaintzea eta antolatzea ere aipatzen ditugu, -azken horiek toki erakargarriak izateko moduan; ildo berean, giro psikologikoa aipatzen dugu, alegia, partaideentzako egokia izatea.

2.- LIDERGO SENDOA, ETORKIZUN IKUSPEGIAREKIN, HEZKUNTZA-KOMUNITATEAREKIN BATERA

Proiektu-zuzendaritzarik ez duten ikastegietan, zuzendaritza-taldearen finkapena



landu behar da. Horrek ikastegian bere ikuspegi estrategikoa proiektatu behar du, hezkuntza-komunitatearen behar eta espektatibei erantzuteko.

3.- IRAKASLEEN LANA, HOBEKUNTZA PROFESIONALAREKIKO ETA IKASTEGIAREN MARTXAN DUEN INPLIKAZIOAREKIKO KONPROMISO ARGIAREKIN

Ikasle talde berarekin esku hartzen duten ikasle guztien jarduera koherente eta koordinaturako ildoak, eta curriculum-garapenaren koherentzia eta sistematizazioa, ikastegian eta horren ibilbidea dutenetan dauden ikasturte, ziklo eta etapetan.

Irakaskuntza-funtzioaren analisia, hobekuntzak egiteko ezinbesteko elementu gisa, prestakuntza iraunkorarekin batera.

4.- FAMILIEN, IRAKASLE EZ DIREN LANGILEEN ETA BESTELAKO ERAGILE ETA INSTITUZIOEN PARTAIDETZA

Beharbada hori da Hamaika Esku Programan parte hartzen duten ikastegiak gehien definitzen dituen ezaugarriak. Izan ere, izenak berak adierazten duen bezala, esku hartze ugarien sinergia behar da lana sustatzeko eta ikastegiaz haratago bultzatzeko.

Familietikiko prestakuntza-jarduerak bizkor eragiten duten ikasleengan (pertzepzio-aldaketa dago eskola-gaien garrantziari buruz, eta ikasle eta gurasoen arteko interakzioak aberastu egiten dira).

Bestela esanda, "sarean lan egiten" duten ikastegiak izan behar dute, inguruko ikastegiekin eta bestelako errealitateekin, auzoarekin, Udaletxearekin, SSBrekin, Eskola Osasunarekin, elkarteekin eta abarrekin. Gainera, Hezkuntza Politikako erabakiek beharrei erantzutera bideratuta egon behar dute, beharrezko neurri diferentzialak emanaz.

5.- ERAKUNDEA BERA EZAGUTZEA

Printzipio hori ere oso esanguratsua da eskola, institutu... bakoitzerako gertatu behar diren aldaketek ikasleengan hezkuntza-erantzun onena bermatuko badute.

Esku-hartzeak planifikatzeari eta lortutakoa ebaluatzeari lotuta dago, ebaluazioetako lortutako datuen arabera, dagozkion hobekuntzak ezartzeko. Hortaz, ezinbestekoa da ikastegiko barne-ebaluazioa, nahiz eta kanpo-ebaluazioek eskaintzen dituzten emaitzetatik ere ikasten den.

Dokumentu honen ezaugarriak

Dokumentu honen asmoa programan parte hartzen duten eragile guztien jarduera-gida izatea da. Dokumentu bizia da eta pixkanaka hobetu egingo da, erabiltzaileek hobekuntza-proposamenak eskaintzen dituzten heinean edo prozesuaren etengabeko ebaluazioak hala orientatzen duen heinean.





2.-PROGRAMAK SUSTATZEN DITUEN JARDUERA-ILDOEN DESKRIBAPENA ETA LAGUNTZA-TRESNAK



Jarraian adierazten diren jarduera-ildoak 2013-2014 ikasturtean egin zen diagnostiko-prozesuan ikastegiak adierazi zituzten zailtasun eta beharren arabera hautatu dira. Jardunbide egokiei buruzko azterketa eta esperientziak ere (ISEI_IVEI-ren azterketa eta abar) ere kontuan hartu dira. Horietan, ikastegiaren funtzionamendua hobetzen eta ikasleen hezkuntza-emaitzetan eragin handiena duten alderdiak azpimarratu dira.

Ildoak honako hauek dira:

- Ikasleen arreta eta segimendua
- Irakaskuntza-jarduera
- Familien eta eskolen arteko lankidetzak
- Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna
- Matematikarako gaitasuna
- Baliabideen plangintza, antolakuntza eta kudeaketa eraginkorra

Jarduera-ildo hauen planteamenduaren helburua Hamaika Esku Programaren inguruko lana egituratzen laguntzea da eta horien segimendua erraztea aholkularitzei, ikuskariei eta talde teknikoari.

Lanaren erreferentzia eta abiapuntua ikastegi bakoitzak, bere lehentasunen arabera, Hobekuntzarako Esku Hartze Planetan edo Urteko Planetan jasotako helburuak dira.

Ikastegiak Ikastegiaren Urteko Planean jaso dituen helburu guztiak bisualizatu eta ulertu behar dira "ikuspegi" berri batetik, hots, lehen aipatutako jarduera-ildoen ikuspegitik.

Hamaika Esku Programan jasotako ikastegi guztiak beren historia eta esperientziak dituzte (batzuk Ikaskuntza Komunitateetan, Esku Hartzeko Globaleko Proiektuetan, metodologia eraginkorretan esperientzia zehatzen batekin, horietako asko Zuzendaritza proiektuarekin...) Guztiak egin dute Hobekuntzarako Esku Hartze Plana, eta hori erreferentziatzeko aholkulari edo ikuskariak ezagutzen du Esparru horretakoak izan behar dute Hamaika Esku Programaren ekintza guztiak, hau da, ikastegiaren prozedura arrunten bidez gauzatu behar dira.

Ikasturte hasieran, Hezkuntza Ikuskaritzak kontuan hartuko du ikastegiak Ikastegiaren Ikasturteko Planean hemen aurkeztzen diren jarduera-ildoetako helburu zehatzak jaso al dituzten, orobat horien plangintza jasota dagoen (ekintzak, adierazleak...). Izan ere, azken horiek ikastegiak ikasleei eskaintzen zaien erantzuna hobetzeko hartutako eta, ziurrenik, egindako Hobekuntza Planean jasotako erabakien emaitza dira.

Ikasturtean zehar, Berritzeguneko aholkulariak lankidetzak, aholkularitzak eta prestakuntza-ekintza guztiak egingo ditu, ikastegiarekin bat, aipatutako helburuak lortzen eta antolatutako ekintzak garatzen laguntzeko. Bestalde, Hezkuntza Ikuskaritzak hiru hilean behin dagokion segimendua eta ikuskapena eskainiko ditu.



Programako talde teknikoak segimendu globala egingo du eta programa arrakastaz garatzeko beharrezko erabakiak hartuko ditu.

Jarduera-ildoak honela egituratzen dira:

0.- Aurkibidea

1.- Esparru kontzeptuala: ikastegietarako, aholkularitzarako eta ikuskaritzarako erreferentzia komuna izango den kontzeptualizazioa erabiltzen saiatu gara.


Jarduera-ildo honen zergatia justifikatzen da eta azaltzen da nola hobetzen duen ikastegi funtzionamendua eta ikasleen hezkuntza-emaitzak.

Hori definitzen eta eratzen duten alderdiak ere jasotzen dira, horietako batzuen aukera arrazoitua egiten da eta, azken horietan, aurki daitezkeen mailak deskribatzen dira (lorpen-maila edo eraginkortasun-mailak).

Lorpen-maila desberdinak deskribatzearen helburua hasierako egoera edo abiapuntua, hobekuntzarako bidea eta denboran egin beharreko eboluzio-jarraipena zehaztu ahal izatea da.

2.- Laguntzarako tresnak: printzipioak, irizpide metodologikoak, orientazioak, prestakuntza-proposamenak, irizpideak eta adibideak ikastegiari aukeratutako helburuak antolatzen laguntzeko... ikastegiari proposatutako helburuak lortzen laguntzera bideratutako tresna desberdinak dira.

3.- Eranskinak: horietako batzuk osatu egin daitezke, eranskinen atal batekin.



JARDUTEKO ILDOA:


JUSTIFIKAZIOA ETA HELBURUAK: jarduteko ildo horren proposamenaren arrazoiak, 11E planaren helburuekiko lotura, emaitzen hobekuntzarekiko eta hautemandako zailtasunekiko lotura... Jarduteko ildo horren lan-proposamenaren helburuak eta horiei dagozkien lorpenen adierazleak.

LAN ILDO HORREN DEFINIZIOA: barne hartzen dituen alderdiak, lorpen-mailak, adierazleak eta/edo estandarrak, orientabide metodologikoak...

Jarduteko ildo horren **PLANIFIKAZIOAN, GARAPENEAN, JARRAIPENEAN eta EBALUAZIOAN zentroa laguntzeko jarraibideak** → Orientazioak eta adibideak: Helburuak eta lorpenen adierazleak proposatzea, jarduketak, jarraipen-adierazleak, metodologia, barne-ebaluazioko prozedura, tresnak eta abar proposatzea.

PRESTAKUNTZA PROPOSAMENAK

HEZKUNTZA IKUSKARITZAK ETA BERRITZEGUNEEK ESKU HARTZEA: helburuak, jarduketak, lorpenen adierazleak...





Jardun-lerroen garapena:

**LI:ARRETA ETA SEGIMENDUA: IKASLEAK
(Ikusi I eranskina)**

**L2:IRAKASKUNTZA-JARDUERA
(Ikusi II eranskina)**

**L3:ESKOLAREN ETA FAMILIAREN ARTEKO
LANKIDETZA
(Ikusi III eranskina)**

**L4:HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO
GAITASUNA
(IV eranskina)**

**L5:MATEMATIKARAKO GAITASUNA
(V eranskina)**

**L6: BALIABIDEEN PLANGINTZA,
ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA.
(VI eranskina)**





3.-HAMAIKA ESKU PROGRAMAREN JARDUERA-ILDOEN HELBURU ETA ADIERAZLEAK LABURBILTZEKO TAULA





HAMAIKA ESKU PROGRAMAREN JARDUERA-ILDOEN HELBURU / ADIERAZLEAK LABURBILTZEKO TAULA

HAMAIKA ESKU PROGRAMAREN JARDUERA-ILDOEN HELBURU / ADIERAZLEAK LABURBILTZEKO TAULA

HELBURU OROKORRAK.

- Ikastegien funtzionamendua eta ikasleen hezkuntza-erantzukizunak hobetzen laguntzea, ikasleen ezaugarriak, zailtasunak, beharrak eta indarguneak oinarri hartuta, jarduera koherente eta egoki baten bidez.
- Zenbait kausarengatik bazterkeria-egoeran egin daitezkeen ikastegien baldintzak hobetzen laguntzea (testuinguru sozioekonomiko eta kultural zaila, kokapen geografikoa, administrazio-egoera...), orobat horietako baliabideen kudeaketa eta eraginkortasuna hobetzea.

JARDUERA-ILDOA	HELBURU ESPEZIFIKOAK	ADIERAZLEAK
IKASLEEN ARRETA ETA SEGIMENDUA	<p>1.- Ikasleen aniztasunari erantzuten dioten eta ikasleen banakako arreta bermatzen duten estrategiak eta prozedurak sustatzea, albait hezkuntza-erantzukizun onenak lortuko badira.</p> <p>2.- Ikaskuntzaranzko motibazioa, ikaskuntza-autonomia eta ikasleen partaidetza sustatzen laguntzen duten estrategiak eta prozedurak bultzatzea.</p> <p>3.- Hezkuntza jasotzeko eskubidea bermatzea, Oinarrizko Hezkuntzako etapako eskolaratzearen bidez (absentismoa desagerrarazi).</p> <p>4.- Ikasle bakoitzaren behar eta espektatibei hobekien erantzuten dien orientazio akademiko eta pertsonala bermatzea.</p>	<p>1.- Estrategia eta prozedura berriak abian jarri dira banakako arreta hobetzeko eta aniztasunaren arreta hobetzeko ikastegien % 80ean</p> <p>2.- Estrategia eta prozedura berriak abian jarri dira ikaskuntzarako motibazio eta interesa hobetzeko ikastegien % 80ean.</p> <p>3.- Eskola-absentismoa murriztu egin da ikastegien % 80ean.</p> <p>4.- Ikasturte / ziklo / etapa amaierako ebaluazio-txostenean hezkuntza-prozesua gidatzeko orientazioak daude ikastegien % 80an.</p> <p>5.- Erantzukizunak hobetzen dira hizkuntza-gaitasunean, gaitasun matematikoan, gaitasun sozialean eta herritar-gaitasunean ikastegien % 80an.</p>
IRAKASKUNTZA- JARDUERA	<p>1.- Ikaskuntza / irakaskuntza prozesuaren eraginkortasuna hobetzea, ikasle guztiengan hezkuntza-erantzukizun hoberenak lortzeko.</p> <p>2.- Eguneratze didaktikoa eta, oro har, irakasleen asebetetze profesionala sustatzea.</p>	<p>1.- Aurrerapenak egin dira deskribatutako alderdietako batzuetan eta irakasleek hobekuntzak adierazi dituzte ikasleen hezkuntza-erantzukizunetan. Hori eskola-erantzukizunetan eta kanpo-ebaluazioetan islatzen da, gutxienez, programan parte hartzen duten ikastegien % 75ean.</p>



	<p>3.- Eskolako giroa hobetzen eta ikasleek ikasketekiko motibazio hobeaz izan dezaten laguntzea.</p>	<p>2.- Ikastegien % 75ean, irakasleek esperientziaren balorazio positiboa egiten dute garapen eta asebetetze profesionalari loturiko alderdian.</p> <p>3.- Ikastegien % 75ean eskolako giroa hobetu dela eta ikasleek ikaskuntzarekiko duten jarrera eta motibazioa hobetu dela adierazi dute (irakasleek, familiek...).</p>
<p>ESKOLAREN ETA FAMILIAREN ARTEKO LANKIDETZA</p>	<p>a) Senideek eta komunitateko beste kide batzuek ikastegian parte hartzearen alde lan egiten jarraitzea, honako hauen bidez:</p> <p>a. Ikastegian parte hartzearen ondorio praktikoak ezagutzea, eta ikastegiaren, familiaren eta komunitatearen arteko lankidetzaren garrantzia eta beharra ulertzen eta baloratzen laguntzea, ikasleek orokorrean, eta batez ere gehiengoaren kulturaz eta talde etnikoaz bestelako kulturetakoak diren eta / edo bazterkeria-egoeran dauden ikasleek, eskolan arrakasta izan dezaten.</p> <p>b. Partaidetza hobetzeko estrategiak, praktikak eta proposamenak ezagutzea eta martxan jartzea.</p>	<p>1.- Jarduera-ildo hau landu den eta horren segimendua egin den ikastegien % 90etan, familien eta eskola-komunitateko beste eragile batzuen partaidetza areagotu egin da eta, horri esker, eskola-giroa eta familia nahiz ikasleen inplikazioa hobetu da hezkuntza-prozesuetan.</p>
<p>HIZKUNTZA-GAITASUNA</p>	<p>a) Ikasleengan beren adinari dagokion hizkuntza-gaitasun maila garatzen laguntzea.</p> <p>b) Irakasleen artean hausnarketa eta berrikuntza metodologikoa sustatzea, eskolako hizkuntzen ikaskuntza / irakaskuntza prozesuak hobetzeko.</p>	<p>1.- Jarduera-ildo hori landu duten eta horren segimendua egin duten ikastegien % 80an islatzen da eskola-emaitzetan eta kanpo-ebaluazioen emaitzetan hobekuntza egon dela, batez ere hizkuntzak pisu gehien duen arloetan.</p> <p>2.- Jarduera-ildo hori landu duten eta horren segimendua egin duten ikastegietako</p>



		<p><i>irakasleek adierazten dute ikaskuntzetan hobekuntza lortzeko prozedura metodologiko egokienei buruz hausnartu dutela. Ikastegien % 80ek berrikuntzak egin dituzte emaitzak hobetzea lortzeko.</i></p>
GAITASUN MATEMATIKOA	<p>a) Ikasleen gaitasun matematikoa hobetzen laguntzea (batez ere prozesu matematikoetan arrazoitzeko eta komunikatzeko gaitasunak, testuinguruetan aurki daitezkeen egoera zailak jorrazteko oinarritzko ebazpen-estrategiak...)</p> <p>b) Irakasleen artean hausnarketa eta berrikuntza metodologikoa sustatzea, eskolako hizkuntzen ikaskuntza / irakaskuntza prozesuak hobetzeko.</p>	<p>1.- Jarduera-ildo hori landu duten eta horren segimendua egin duten ikastegien % 80an islatzen da eskola-emaitzetan eta kanpo-ebaluazioen emaitzetan hobekuntza egon dela, batez ere matematika-arloan.</p> <p>2.- Jarduera-ildo hori landu duten eta horren segimendua egin duten ikastegietako irakasleek adierazten dute ikaskuntzetan hobekuntza lortzeko prozedura metodologiko egokienei buruz hausnartu dutela. Ikastegien % 80ek berrikuntzak egin dituzte emaitzak hobetzea lortzeko.</p>
BALIABIDEEN PLANGINTZA, ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA.	<p>1.- Programako ikastegien Zuzendaritzetan plangintzarako eta kudeaketarako gaitasunak hobetzen laguntzea.</p> <p>2.- Ikastegiei beren jarduera eta baliabideen antolakuntza planifika dezaten laguntzea, eraginkortasun-irizpideetan oinarrituta.</p> <p>3.- Ikastegiari esleitutako ezohiko baliabideek balio erantsia ekartzen dutela bermatzea eta sustatzea.</p> <p>4.-Erantzun diferentziala eskaintzea ikastegiei Sailak eskuratzen dizkien baliabideen banaketan, ikasleen hezkuntza-emaitzak hobetze aldera</p>	<p>1.- Jarduera-ildo honi loturiko helburuak proposatu dituzten zuzendaritzek baloratzen dute hobetu egin dutela planifikatzeko eta kudeatzeko ahalmena.</p> <p>2.- Baliabideen banaketarako, antolatze eta kudeaketarako irizpideak berrikusi ondoren, baloratu da eraginkortasun eta efikazia irizpideak erabiltzen direla ikastegien % 80an.</p> <p>3.- Hezkuntza-ikuskaritzak egindako segimenduan, kasuen % 90ean adierazten da ezohiko baliabideei esker ikastegiaren funtzionamendua eta ikasleen hezkuntza-erantzuna hobetu egin dela.</p> <p>4.- Administrazioak baliabide-hornidura berezia eskaini du, langile-kudeaketako mekanismo espezifikoak abian jarri dira eta</p>



		<i>zenbait zerbitzuren laguntza eta segimendua indartu da, programan parte hartzen duten ikastegien baldintzak hobetzeko.</i>
--	--	---



4.- PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEEN JARDUERA PROGRAMAN



IKASTEGIKO JARDUERAK



IKASTEGIAREN JARDUERAK

AURKEZPEN OROKORRA

Hamaika Esku programa garatu aurreko fasean, ikastegiek ikasleekin albait hezkuntza-emitza onenak lortzeko dituzten beharrak, zailtasunak eta lehentasunak adierazi zituzten.

Datu horiek eta ikerketa eta argitalpen pedagogiko garrantzitsuenetako elementuak kontuan hartuta, eskola-arrakasta hobetzeko 6 lan-ildo edo jarduera-ildo ezarri ziren, dokumentu honetan jasotzen direnak.

Nolanahi ere, jarduera-ildo hauetan jasotzen diren alderdi guztiak garrantzitsuak badira ere ikastegien funtzionamendua eta, ondorioz, ikasleen erantzuna hobetzeko, ikastegien egoera askotarikoa da alderdi desberdinetan eta, hori dela eta, lehentasuna alderdi batzuk edo beste batzuk jorratzea da.

Hartara, programak iraungo duen hiru ikasturteetan, ikastegiek zailtasun eta / edo behar garrantzitsuenei loturiko helburuak lortzera orientatutako ekintzak aukeratuko, antolatuko eta garatuko dituzte.

Helburu horiekin bat, ikastegi bakoitzak bere lehentasunak edo lan-ildoak zehaztuko ditu eta / edo, horien barruan, arreta eta ahalegina modu lehenetsian zer alderditan jarriko dituzten. Horretarako, aholkulariaren eta erreferentziatzko ikuskariaren aholkularitza eta laguntza jasoko dute.

Hezkuntzako sailburuordearen ikasturte hasierako ebazpenean, jasotzen da programan parte hartzen duten ikastegiek beren Urteko Planetan aipatutako 6 jarduera-ildoetako batekin erlazionatutako helbururen bat jasoko dutela.

Ziurrenik, Urteko Planen helburuetan ikastetxeetan azaldutako zailtasunak eta beharrak egongo dira islaturik, programaren garapena baino lehen egindako zailtasun eta beharren diagnosiaren arabera egituratu baitziren 6 lerroak.

Helburu horiek aukeratzeko, erreferentziatzko aholkulariaren eta erreferentziatzko ikuskariaren lankidetzeta eta aholkularitza izango da, ikastegiarekin lanean jarraituko baitute, helburuak dagokion aholkularitzaren eta segimenduaren bidez lortzeko.

Ikastegiak, helburuak aukeratzeko orduan, hiru urteko plangintza egin dezake edo urtez urte aukera ditzake, ikasturte amaieran egingo den ebaluaziotik lortutako emitza eta ondorioen arabera.



2014-2015 ERAKO JARDUERAK

Kontuan hartuta programan aukeratutako jarduera-ildoak, oinarrian, ikastegien zailtasun eta beharretatik abiatzen direla, ziurrenik 2014ko irailean ikastegiek jadanik zehaztuta izango dituzte horiei loturiko helburuak Hobekuntzarako Esku Hartze Planean edo Urteko Planetan.

Ez bada hala, eta ikasturte hasierako Ebazpenaren arabera, Ikastegiaren Urteko Planean aipatutako jarduera-ildoetako batekin erlazionatutako helbururen bat jaso behar denez, ikastegiek baten bat jaso beharko dute.

Behin helburuak eta horiei loturiko jarduera-ildoak edo lan-alderdiak zehaztutakoan, helburu horiek lorpen- eta jarraipen-adierazleen bidez, ekintzen bidez, abian jartzeko eta segimenduko arduradunen bidez, baliabideen bidez... zehaztu behar dira.

Aukeratutako helburuak 2013 / 2014 ikasturtean egindako Hobekuntzarako Esku Hartze Planaren barruan badaude, plangintza hori jadanik eginda dago.

Hezkuntza-ikuskaritzak, Urteko Plana ikuskatzen duenean (eta horren barruan dago Hobekuntzarako Esku Hartze Plana), egindako plangintzaren egokitasuna aztertuko du aukeratutako helburu guztiei dagokienean, eta dagozkion hobekuntza-proposamenak egingo ditu. (Hori kasu askotan 2013 / 2014 ikasturtean eginda egongo da, Hobekuntzarako Esku Hartze Planaren balorazio-txostenaren bidez)

Berritzeguneko aholkulariak ikastegiarekin lankidetzan jardungo du aukeratutako helburuak planifikatzen, baldin eta ez badago behar bezala garatuta edota doikuntzak egin behar badira, eta ikasturtean zehar garatzen.

Ikasturte hasieran, ikastegi bakoitzean batzorde bat eratuko da, Hamaika Esku programari loturiko ekintzen jarraipena egiteko. Batzorde hori diagnostiko-ebaluazioko segimendu-batzordearekin bat etor daiteke.

Hiru hilean behin, ikastegiak fitxa bat beteko du (lehen hiruhilekoan: I. eranskina; bigarren hiruhilekoan: II. eranskina; hirugarren hiruhilekoan: III. eranskina), planifikatutako jardueren segimendua jasotzeko. Fitxa hori erreferentziazko ikuskariari helaraziko zaio. Tartean dauden alderdiek komeni dela jotzen badute, fitxa hiruhileko bakoitzaren amaieran bete ahal izango da aipatutako batzordeak erreferentziazko ikuskari eta aholkulariarekin egingo dituen bileretan.

Erreferentziazko ikuskariak eta aholkulariak ikastegiak planifikatutako jardueren garapenaren segimendua egingo dute, dagokion fitxa beteko dute eta Talde Teknikoari bidaliko diote, ikastegiari dagokion ikuskaritza-eremuko programaren arduradunaren bidez.

Ikasturte amaieran, egindako ekintzak ebaluatu ostean eta proposatutako helburuen lorpen-maila baloratu ostean, ikastegiak hori guztia islatuko du ikasturtearen



memorian. Halaber, hirugarren hiruhilekoko fitxan (III. eranskina) balorazio horren laburpen bat egingo da. Hori erreferentziazko ikuskariari helaraziko zaio eta horrek talde teknikoari bidaliko dio, programaren eremuetako arduradunen bidez.

Era berean, ebaluazioaren emaitzak kontuan hartuta, hurrengo ikasturtean lantzeko helburuen aurreikuspen bat egingo da.

Aurreikuspen horretan, kontuan hartuko dira erreferentziazko ikuskariak eta aholkulariak ikasturtean zehar egindako laguntza- eta segimendu-prozesuaren ondorioetatik ateratako balorazio eta proposamenak.

ERANSKINAK

I. eranskina: lehen hiruhilabeteko segimendu-fitxa

II. eranskina: bigarren hiruhilabeteko segimendu-fitxa

III. eranskina: hirugarren hiruhilabeteko segimendu-fitxa eta ikasturtearen ebaluazioa

2015-2016 JARDUERAK

Helburu berriak planteatzea.

Dagokion prestakuntza

Segimendu-fitxak betetzea

Ebaluazioa.

2016-2017 JARDUERAK

Helburu berriak planteatzea.

Dagokion prestakuntza

Segimendu-fitxak betetzea

Azken ebaluazioa. Emaitzak aztertzea. Hiru ikasturteetan izandako hobekuntzak baloratzea.

2.- IKASTEGIKO JARDUEREN KRONOGRAMA. 2014-15 IKASTURTEA



Ikuskaritzarekin eta / edo berritzegunearekin bilera, honako hauetarako:

2014ko iraileko
bigarren
hamabostaldia

- Gai hauen inguruko informazioa jasotzeko:
 - 2014ko apirilean zailtasunak / beharrak jasotzearen ondorioak (2. txantiloian jasotako datuen laburpena).
 - Hobekuntza sustatzen duten alderdiak: Esparru orokorra (Hezkuntza-ikerketak)
 - Talde Teknikoak garatutako jarduera-ildoen aurkezpena
- 2014 / 2015erako jardueran planifikatzea eta jarraitzea errazteko tresnak aurkeztea
- 2014 / 2015 ikasturtean ikastegietako zerbitzuek aurreikusitako jarduerari buruzko informazioa jasotzea.
- Zerbitzu-eginkizunetan emandako plazen eta, hala dagokionean, jasotako baliabide gehigarrien egoeraren segimendua egitea.

2014-15 urterako plangintza:

2014ko urria

- Ikastegiaren Urteko Plana egitea, 2014 / 2015 urteetarako helburuak jasoz (lorpen-adierazleak, ekintzak ikastegi, gela eta ikasle mailan, segimendu-adierazleak, antolamendua, garapenaren eta segimenduaren arduradunak, baliabideak, denboralizazioa, prestakuntza-ekintzak...).
- 2014 / 2017 Helburu-aurreikuspen bat ere egin daiteke

Ikuskaritzarekin eta / edo berritzegunearekin bilera, honako hauetarako:

1. hiruhilekoa

- Ikastegiak 2014 / 2015 ikasturtean landuko dituen jarduera-ildoak eta / edo alderdiak identifikatzea, Ikastegiaren Urteko Planean edo Hobekuntzako Esku Hartzeko Planean jasotako helburuekin eta abiapuntuarekin bat.
- Berritzeguneko aholkulariak eskainiko duen laguntza eta lankidetzak garatzeko jarraitu beharreko prozedura adostea.
- Beharrezko prestakuntza eta horren garapenaren plangintza adostea.

Ikastegiaren Urteko Plana garatzea

- Lehen hiruhilekoko ekintzak abian jartzea
- Lehen hiruhilekoko segimendu- eta ebaluazio-fitxa betetzea (I. eranskina) eta erreferentziatzko ikuskariari helaraztea. (Aholkulariarekin eta ikuskariarekin bete daiteke)

Ikastegiaren Urteko Plana garatzea

2. hiruhilekoa

- Bigarren hiruhilekoko ekintzak abian jartzea
- 2. hiruhilekoko segimendu- eta ebaluazio-fitxa betetzea (II. eranskina) eta erreferentziatzko ikuskariari helaraztea.

Ebaluazioa. Garapena. Proposamen berriak.

3. hiruhilekoa

- 3. hiruhilekoko ekintzak abian jartzea
 - 3. hiruhilekoko segimendu- eta ebaluazio-fitxa betetzea (III. eranskina) eta erreferentziatzko ikuskariari helaraztea.
 - Ebaluazioa: Ondorioak. Proposatutako helburuen lorpen-maila eta hurrengo ikasturterako proposamenak baloratzea (jarduera-ildo berriak, jarduera-ildo berarekin jarraitzea beste alderdi bat landuz...).
-



	2015-16 Ikasturtea	2016-17 Ikasturtea
Lehen hiru hilabetekoa	<p>Helburuen planifikapena</p> <p>Urteko plana ikuskaritzara bidali</p> <p>Erreferentziako aholkulariarekin bildu</p> <p>Jarraipen bilera erreferentzia ikuskariarekin eta aholkulariarekin</p> <p>Lehen hiru hilabeteko jarraipen-txantiloia bete eta ikuskaritzara bidali.</p> <p>Urteko planaren memoria</p>	<p>Helburuen planifikapena</p> <p>Urteko plana ikuskaritzara bidali</p> <p>Erreferentziako aholkulariarekin bildu</p> <p>Jarraipen bilera erreferentzia ikuskariarekin eta aholkulariarekin</p> <p>Bilera talde teknikoarekin (2016ko azaroaren 3an)</p> <p>Lehen hiru hilabeteko jarraipen-txantiloia bete eta ikuskaritzara bidali</p>
Bigarren hiru hilabetekoa	<p>Planifikatutako jarduerak martxan jarri</p> <p>Jarraipen bilera erreferentzia ikuskariarekin eta aholkulariarekin</p> <p>Bigarren hiru hilabeteko jarraipen-txantiloia bete eta ikuskaritzara bidali</p>	<p>Planifikatutako jarduerak martxan jarri</p> <p>Jarraipen bilera erreferentzia ikuskariarekin eta aholkulariarekin</p> <p>Bigarren hiru hilabeteko jarraipen-txantiloia bete eta ikuskaritzara bidali</p>
Hirugarren hiru hilabetekoa	<p>Proposatutako helburuen ebaluazioa</p> <p>Jarraipen bilera erreferentzia ikuskariarekin eta aholkulariarekin</p> <p>Hirugarren hiru hilabeteko jarraipen-txantiloia bete eta ikuskaritzara bidali</p> <p>Urteko planaren memoria</p>	<p>Proposatutako helburuen ebaluazioa</p> <p>Jarraipen bilera erreferentzia ikuskariarekin eta aholkulariarekin</p> <p>Programaren Hiru ikasturtetan izandako aurrerapenak ebaluatu (galdeketa on-line bete) eta Hirugarren hiru hilabeteko jarraipen-txantiloia bete eta ikuskaritzara bidali</p>



BERRITZEGUNEKO AHOLKULARIAREN JARDUERAK



4. BERRITZEGUNEKO AHOLKULARIAREN JARDUERA

4.1 AURKEZPEN OROKORRA

- **Lankidetzan jarduteko / aholkularitzarako / prestakuntzarako alderdiak**

EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. Garrantzitsua da ikastegiko profesionalei entzutea, **egoeraren analisia** distortsiona dezaketen aurreiritzirik gabe. Aholkularitzak ezkutuan dauden testuinguru-aldagaiak agerian uzten lagun dezake. Potentzialtasunetan eta aukeretan arreta jartzea batez ere.

JARDUERA-ILDOAK IDENTIFIKATZEA. Ezinbestekoa da aholkulariak ikastegiari **laguntzea** hautemandako beharrei erantzuten hobeto lagun dezaketen jarduera-ildoak aukeratzeko eta erabakitzekeo prozesuan. Aholkulariak ikuspegi globala eskainiko du eta, jarduerak planifikatzeko, ikastegiak dituen **ohiko egiturak eta prozedurak erabiltzen** saiatuko da (hobekuntza-plana, koordinaziorako ohiko egiturak, prestakuntza-plana...)

DEDIKAZIOA. Aholkularitza “trinkoa” beharrezkoa da Hamaika Esku programan parte hartzen duten ikastegietarako. Halako aholkularitza batean, dedikazio handiagoa eskatzen da eta gure ezagutza tekniko guztiak Planak lortu nahi dituen helburuen zerbitzura jartzen dira.

BERRITZEGUNEAREN ETA IKUSKARITZAREN ARTEKO KOORDINAZIOA. Lankidetzak **estua behar da erreferentziazko ikuskariarekin**, nor bere jarduera-esparru espezifikoetik, ikastegira mezu koherenteak iristeko eta esku-hartze eraginkor eta koordinatuak garatzeko.

JARDUEREN PLANGINTZA. Aholkularitzak ikastegiarekin adostu behar du bere esku-hartze orokorra eta **ekintza-zehatzetako lankidetzak** (prestakuntza-saioak, sailekiko koordinazioak, gelako laguntzak eta abar).

PRESTAKUNTZA. Irakasleen eguneratze metodologikoan laguntzen duten **prestakuntza-ildoak** jorratu behar dira eta aholkularitzak orientazioa eskaini behar du horiek ikastegiaren ezaugarrietara moldatzeko.

4.2. 2014-2015-ERAKO JARDUERAK

4.2.- BERRITZEGUNEKO AHOLKULARIAREN JARDUEREN. KRONOGRAMA



Erreferentziako Ikuskariak eta Aholkulariak aurkeztea	
2014ko iraileko lehen hamabostaldia	<ul style="list-style-type: none"> - Zailtasunak / beharrak jasotzean ateratako ondorioak (2. txantiloian jasotako datuen laburpena). - Hobekuntza sustatzen duten alderdiak (hezkuntza-ikerketako azken ondorioak) - Talde Teknikoak garatutako jarduera-ildoen aurkezpena - Ikastegiei jarduera-proposamena aurkeztea - 2014 / 2015 ikasturtean ikastegietako zerbitzuek aurreikusitako jarduera aurkeztea.
Ikuskariak / aholkulariak ikastegiei aurkeztea:	
2014ko iraileko 2. hamabostaldia	<ul style="list-style-type: none"> - Zailtasunak / beharrak jasotzean ateratako ondorioak (2. txantiloian jasotako datuen laburpena). - Hobekuntza sustatzen duten alderdiak (hezkuntza-ikerketako) - Talde Teknikoak garatutako jarduera-ildoen aurkezpena - Garatuko diren prestakuntza-ildoak adostea, ikastegian 2014 / 2015 ikasturtean landuko diren jarduera-ildoekin bat. - Ikastegiei jarduera-proposamena aurkeztea - 2014 / 2015 ikasturtean ikastegietako zerbitzuek aurreikusitako jarduera aurkeztea.
Urriko 1. hamabostaldia	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastegiarekin adostutako prestakuntza-ildoak talde teknikoari jakinarazten dizkio erreferentziako ikuskaritzaren bidez.
2014ko urria	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastegiarekin lankidetzan dihardu 2014-15 ikasturterako jarduerak planifikatzeko prozesuan, ikastegiarekin adosten den moduan. - Prestakuntza prestatzen du eta ikastegiarekin prozedura, datak... adosten ditu. - Ikastegiarekin ekintza zehatzetarako lankidetzan adosten du.
1. hiruhilekoa	<ul style="list-style-type: none"> - Prestakuntza koordinatzen du, ikasketa-burutzarekin edota horrek eskuordetzen duen pertsonarekin batera. - Ikastegiarekin lankidetzan dihardu, onartutako akordioen arabera. - Ikuskaritzarekin lankidetzan dihardu beharrezkotzat jotzen den orotan eta segimendu- eta ebaluazio-prozesuan garrantzitsuak izan daitezkeen datu edo egoerak jakinarazten dizkio. - Talde teknikoari prestakuntzaren garapena jakinarazten dio (<i>dagokion tresna erabiliz</i>), ikastegiaren erreferentziako ikuskariaren bitartez. - Jardueren garapen orokorraren informazioa jasotzen du eta egokitzen deritzon hobekuntza-proposamenak planteatzen ditu.
2. hiruhilekoa	<ul style="list-style-type: none"> - Prestakuntza koordinatzen du, ikasketa-burutzarekin batera. - Ikastegiarekin lankidetzan dihardu, onartutako akordioen arabera. - Talde teknikoari prestakuntzaren garapena jakinarazten dio ikastegiaren erreferentziako ikuskariaren bitartez. - Jardueren garapen orokorraren informazioa jasotzen du eta egokitzen deritzon hobekuntza-proposamenak planteatzen ditu. (<i>Talde Teknikoaren eremuko arduradunak deitzen eta dinamizatzen ditu</i>)
